ZIGILUA
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua 2026/11/26

BORTZIRIETAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEKO EUSKARA TEKNIKARI LANPOSTUA BETETZEKO IZANGAIEN ZERRENDA ERATZEKO ETA KONTRATAZIO EDO ORDEZKAPENETARAKO LAN-POLTSA SORTZEKO DEIALDIA.

Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakariaren 2026ko azaroaren 26ko 84/2026 Lehendakari Ebazpenaren bidez, Mankomunitateko euskara teknikariaren lanpostua aldi baterako betetzeko izangaien zerrenda osatzeko deialdia onartu da, hautaproben bidez.

Hautaketa-prozesu hori gauzatuko da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onartutako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bateginean gaiari buruz xedatutakoari jarraikiz (113/1985 Foru Dekretua, ekainaren 5ekoa, hura garatzeko eta betearazteko emandako sarrera-araudia onartzen duena), irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera. Administrazio-araubideko langileen kontratazioa arautzen da gainerako arau aplikagarrietan eta haren oinarrietan.

OINARRIAK

1.- DEIALDIAREN XEDEA.

Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitateko euskara teknikari lanpostua betetzeko hautagaien zerrenda osatzeko deialdia iragartzen da, hautaketa-proben bidez.

Hautaketa horretatik sortzen den lan-poltsa hurrengo kontratazio eta ordezkapenetarako erabiliko da, eta bortz urtez egonen da indarrean, edo, bertzela, bertze deialdi bat egin arte, bortz urte baino gutxiagoko epean egiten bada; azken kasu horretan, deialdi honetatik sortzen den zerrendak bigarren postuan jarraituko du, bortz urte bete arte.

Lanpostua Nafarroako administrazio publikoen B mailaren barruan dago, eta Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitateko plantilla organikoan horri buruz onartutako ordainsaria izanen du.

Deialdi honetan parte hartzeko, beharrezkoa da izangaiek euskararen ezagutza gutxienez C1 mailarekin edo titulazio baliokidearekin egiaztatzea. Horretarako, hizkuntza-eskola ofizial batek edo bertze erakunde eskudun batek emandako gaitasun-ziurtagiria eduki beharko dute.

2.- PARTE-HARTZAILEEN BETEBEHARRAK.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzen den estaturen batekoa.

ZIGILUA
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua 2026/11/26

Espainiarren eta Europako Batasuneko bertze estatuetako herritarren ezkontideek ere hartzen ahal dute parte, edo aipatu nazioarteko itunen aplikazio eremuan sartutako estatuetako herritarren ezkontideek, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo gorakoak baldin haien kontura bizi badira.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

c) Euskarazko hizkuntza gaitasuna egiaztatzen duen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailako titulua edo baliokideren bat izatea, gutxienez.

d) Unibertsitateko Diplomatu edo Graduatuko, Ingeniari Teknikoko, Arkitekto Teknikoko edo horien baliokidea den titulu bat edukitzea eskabideak aurkezteko mugaegunean, edo halakoak erdiesteko manera egotea.

e) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

f) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia ez izatea.

g) B motako gidabaimena eta ibilgailua izatea.

Espainiako nazionalitatea ez izanik parte hartu nahi dutenek zinpeko aitorpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, adierazteko ez dutela diziplina-zehapenik edo kondena penalik beren estatuko funtzio publikoan sartzea galarazten dienik.

Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio, langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoen kasuan, itunaren frogagiria aurkeztu beharko da.

Oinarri honetan ezarritako baldintza guztiak eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira, bai eta hautapen prozedurak eta kontratazioak iraun bitartean mantendu ere. Gerora horietakoren bat ez betetzea nahikoa arrazoi izanen da deirik ez egiteko, harik eta arrazoi hori desagertu arte.

3.- ESKABIDEAK

Eskabideak I. ERANSKINEAN argitaratzen den ereduari lotuko zaizkio. Eskabideetan izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela.

Izangaiek honako hau aurkeztu behar dute eskabidearekin batera:

–Nortasun agiri nazionalaren –edo baliokidearen– fotokopia.
–Eskaturiko titulua edo tasak ordaindu izanaren jatorrizko agiriak edo kopiak.
–Baloratuko diren merezimenduak frogatzeko jatorrizko agiriak edo kopiak.
–Hizkuntza maila egiaztatzeko eskatutako tituluaren fotokopia.

ZIGILUA
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua 2026/11/26

Aski izanen da dokumentazioaren kopia soilak aurkeztea, baina aurkeztutako datuak edo agiriak ez-zuzenak edo faltsuak badira, behar diren erantzukizun penal, zibil edo administratiboak eskatuko dira. Hala ere, Administrazioak noiznahi eskatzen ahalko dizkie izangaiei aurkeztutako dokumentazioaren jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak.

Ahal dela, dokumentazioa Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitateko egoitza elektronikotik aurkeztuko da (https://mbortziriak.sedipualba.es/). Ezinezkoa bada, aurrez aurre edo postaz aurkeztu ahal izanen da.

Eskabidea posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian aurkeztuko da, postako langileek data eta zigilua jar ditzaten ziurtatu aurretik.

Eskabideak postaz igortzen badira, interesdunak zer egun eta ordutan egiten den frogatu beharko du, eta kontratazio organoari hori bera jakinarazi, posta elektronikoz (idazkaria@bortziriak.eus); betiere, aurkezteko epearen egun eta orduen barrenean.

Baldintza horiek bete ezean ez da iragarki honetako epetik kanpo iristen den proposamenik onartuko.

Ezgaitasun aitorturen bat duten izangaiek, parte hartzeko eskabidearekin batera, egoera horren frogagiria aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana. Halaber, azterketak egiteko denboraren edo baliabideen egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte. Kasu horretan, eskabidean behar den tokian adierazi beharko dute, eta, horrez gainera, aparteko orri batean, nolako ezgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten.

4.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Eskabideak aurkezteko epea **2026ko abenduaren 14ko 12:00ak arte** izanen da, egun hori barne. Ezin izanen da luzatu.

5.- IZANGAIEN ONARPENA ETA PROZEDURA

5.1. Behin-behineko zerrendak. Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, lehendakariak ebazpena emanen du izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko. Izangai onartu eta baztertutakoen zerrenda Mankomunitateko egoitza elektronikoan zintzilikatuko da. Izangai bazterturik ez bada, bertzerik gabe onetsiko da onartuen zerrenda behin betiko gisa.

Izangai baztertuek bortz egun balioduneko epea izanen dute, behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik, erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, haiek zuzentzeko.

5.2. Behin betiko zerrendak. Erreklamazioetarako epea bukatutakoan eta haiei erantzun ondotik, lehendakariak ebazpen bat emanen du, onesten duena onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda, eta aginduko du argitara dadila Mankomunitatearen

ZIGILUA
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua 2026/11/26

egoitza elektronikoan. Ebazpen horretan bertan zehaztu daiteke probak non, noiz eta zer ordutan hasiko diren.

5.3. Onartuen zerrendan agertzea ez da aski deialdian eskatutako baldintzak betetzen direla aitortzeko. Izangaiek aurkeztutako agiriak edo Mankomunitateak bere eskuetan dauzkanak aztertuta, eskatutako baldintzetako bat betetzen ez dutela ohartuz gero, interesdunek deialdian parte hartzeagatik dituzten eskubide guziak galduko dituzte, horrek deusetan galarazi gabe faltsukeria dela-eta dagozkien erantzukizunak arlo penalean, zibilean edo administratiboan.

5.4. Izangai onartu eta baztertuen zerrendak argitaratzearekin egintzat joko da interesdunei egin beharreko jakinarazpena, jarraikiz urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.b) artikuluari (lege horrek hizpide du administrazio publikoen administrazio prozedura erkidea).

6.- KALIFIKAZIO-EPAIMAHAIA

6.1. Epaimahai kalifikatzailea kide hauek osatuko dute:

Lehendakaria: Patxi Castillo Graciarena, Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakaria.
Ordezkoa: Ladis Satrustegui Alzugaray, Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakari ordea.
1. bokala: Urko Ikardo Enparan, Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitateko euskara teknikaria.
Ordezkoa: Teresa Iribarren Larrea, Auritz, Artzibar, Erroibar, Luzaide, Orotz-Betelu eta Orreagako udaletako euskara teknikaria.
2. bokala: Mario Zapata Solano, Berriobeitiko Udaleko euskara teknikaria.
Ordezkoa: Belen Ausejo Garriz, Lizoainibar eta Arrasgoitiko udaletako euskara teknikaria
3. bokala: Leire Mitxelena Gamio, Arantzako Udaleko ordezkaria.
Ordezkoa: Eneko Fernández Maritxalar, Lesakako Udaleko ordezkaria.
Idazkaria: Jone Leiza Irazoqui, Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitateko idazkaria.
Ordezkoa: batzordeburuak izendatuko duen bertze idazkari bat.

6.2. Mahaiburuak deituta eratu beharko da epaimahaia, probak hasi aitzinetik.

6.3. Epaimahaia ezinen da eratu, ezta jardun ere, gutienez kideen gehiengo osoa bertaratu gabe.

6.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeari eta aplikatzeari buruz plantea daitezkeen gai guztiak.

6.5. Epaimahai kalifikatzaileko kideek ezin izanen dute epaimahaian parte hartu, eta horren berri eman beharko diote deialdia egin duen organoari, Sektore Publikoaren

ZIGILUA
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua 2026/11/26

Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada.

Halaber, izangaiek epaimahai kalifikatzaileko kideak ezetsi ahal izanen dituzte aipatutako inguruabarrak gertatzen direnean.

Legez ezarritako abstentzio- eta ezespen-arrazoiak aplikatuz, epaimahaiaren osaeran aldaketaren bat gertatzen bada, onartu eta baztertutako izangaien zerrendarekin batera argitaratuko da epaimahaia.

6.6. Epaimahaiak aholkulari espezialistak sartu ahal izanen ditu proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulariek beren espezialitate teknikoak baino ez dituzte erabiliko, eta espezialitate horiek bakarrik oinarri hartuta lagunduko diote epaimahaiari.

7.- HAUTAKETA PROZESUAREN GARAPENA ETA BALORAZIOA

7.1. Oposizio-lehiaketa bi alditan eginen da: lehiaketaldia lehenbizi, eta oposizioaldia gero, oinarri hauetan zehazten den gisara.

7.2. Lehiaketaldia. Merezimenduen balorazioa.

Merezimenduen balorazioak gehienez 30 puntu izanen ditu.

Epaimahaiak II. ERANSKINEKO baremoaren arabera baloratuko ditu merezimenduak, eta balorazio hori proba teoriko-praktikoa baino lehen argitaratuko du Mankomunitatearen egoitza elektronikoan (https://mbortziriak.sedipualba.es).

Merezimendu gisa baloratzeko aurkeztu nahi den dokumentazioa eskabidearekin batera aurkeztu beharko da. Jatorrizko agiriak edo kopiak izan beharko dute. Ez dira inolaz ere aintzat hartuko agiri bidez aurkeztu eta frogatu ez diren merezimenduak.

Epaimahaiak alegatutako merezimenduei buruzko argibideak eta datu osagarriak eskatu ahal izanen dizkie izangaiei.

7.3. Oposizioaldia. Proba teoriko-praktikoa.

Gehienez 70 puntu lortzen ahalko dira.

Proba urtarrilean egingo dela aurreikusten da. Proba egiteko eguna, ordua eta lekua posta elektronikoz jakinaraziko zaie hautagaiei. Informazio hori Mankomunitatearen egoitza elektronikoan ere argitaratuko da (https://mbortziriak.sedipualba.es).

Lehenbiziko proba test modukoa izanen da, III. ERANSKINEKO gai zerrenda oinarri hartuta, lanposturako beharrezkoak diren oinarrizko eduki teorikoen ezagutza maila frogatzeko. Gehienez ere 40 puntu. Gutxienez 20 puntu lortu behar dira. Ariketa hau egiteko denbora, gehienez: ordubete. Erantzun zuzen bakoitzak 1,00 puntu gehituko du eta erantzun oker bakoitzak 0,25 puntu kenduko du.

ZIGILUA
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua 2026/11/26

Bigarren proba kasu praktikoaren ebazpena izanen da, IV. ERANSKINEKO gai zerrenda oinarri hartuta. Gai horietatik bi hautatuko dira zozketa bidez eta biak garatu behar dira. Kasu praktikoa garatzeko gaiak zehaztuak emanen dira ariketaren enuntziatuan. Ariketa hau egiteko denbora, gehienez: hiru ordu. Proba honek bi zati izanen ditu: idatzizkoa (testaren egun berean eginen da) eta ahozkoa (bertze egun batean eginen da). Osotara gehienez ere 30 puntu lortzen ahalko dira, 20 puntu idatzian eta 10 ahozkoan. Bi zatietan puntuazio horren erdia gutienez erdietsi beharko da gainditu ahal izateko.

Eduki teorikoen ezagutza baloratzeko testa eta bigarren probari dagokion ariketa idatzia egun berean eginen dira. Bigarren ariketa testa gainditu duten izangaiei bakarrik zuzenduko zaie. Era berean, bi ariketa idatzi horietan zehaztutako gutxieneko puntuazioa lortu duten izangaiek soilik eginen dute kasu praktikoaren ahozko aurkezpena.

Ariketak pliken sistemaren bidez eginen dira.

Probarako deialdia deialdi bakar baten bidez eginen da. Deialdi horretan, parte-hartzaileek Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo gidabaimena eraman beharko dute. Beren nortasuna egiaztatzen ez dutenak edo agertzen ez direnak ezabatu eginen dira.

Proba egitean, ezin izanen da testurik kontsultatu.

Proba guztiak euskaraz eginen dira. Proba guzietan, idatzizkoetan nahiz ahozkoetan, baloratuko da euskara maila zuzena eta egokia izatea.

Hautaprobak irauten duen bitartean, desgaitasun aitortua dutenentzat eta eskabidean hala eskatu dutenentzat, proba egiteko denboren eta bitartekoen egokitzapen posibleak eta beharrezkoak ezarriko dira.

Oposizioko ariketetako behin-behineko emaitzak argitaratuko dira Mankomunitateko egoitza elektronikoan. Behin-behineko emaitzei alegazioak aurkezteko epea 5 egun baliodunekoa izanen da.

8.- GAINDITU DUTEN IZANGAIEN ZERRENDA ETA DEI EGITEA

Parte-hartzaileen artean puntuazioan berdinketa gertatuz gero, epaimahaiak ebatziko du, proba teoriko-praktikoan lortutako notarik altuena kontuan hartuta. Aurreko irizpideekin berdinketak jarraitzen badu, epaimahaiak horretarako egindako zozketa bakar baten bidez ebatziko da.

Proba teoriko-praktikoa eta baremazioa kalifikatu ondoren, epaimahaiak Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatearen egoitza elektronikoan (https://mbortziriak.sedipualba.es) argitaratuko du gainditutako izangaien zerrenda, lortutako guztizko puntuazioaren arabera ordenatuta, eta puntuaziorik altuena duen hautagaiarekin hasiko da.

ZIGILUA
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua 2026/11/26

Zerrendan geratutako izangaiei dei egin ahal izanen zaie, Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatean sortzen diren premien arabera, deialdi honetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritakoaren arabera.

Poltsara deitzeko, V. ERANSKINEAN ezarritako araudia hartuko da kontuan.

Lokalizazioa errazte aldera, izangaiek harremanetarako telefono bat (horrez gain, bertze telefono batzuk ere jakinarazi ahal izanen dituzte) eta posta elektronikoko helbide bat gutxienez komunikatu beharko dituzte, eta informazio hori etengabe eguneratuta eduki beharko dute.

9.- KONTRATAZIO-ZERRENDAREN KUDEAKETA

Deialdia ebatzi eta gaindituen zerrenda onartuko dira. Deialdian ezarritakoaren arabera proba gainditu duten izangai gaindituek osatuko dute zerrenda. Era berean, oposizioaldiaren lehen ariketa bakarrik gainditu duten izangaiekin kontrataziorako erreserba-zerrenda osatuko da.

Atal honen babesean eratutako zerrenda bortz urtez egonen da indarrean, edo, bertzela, bertze deialdi bat egin arte, bortz urte baino gutxiagoko epean egiten bada; azken kasu horretan, deialdi honetatik sortzen den zerrendak bigarren postuan jarraituko du, bortz urte bete arte.

10.- ERREKURTSOAK

Deialdi honen aurka, nahiz bere oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, errekurtso hauetako bat aurkez daiteke, aukeran:

a) Berraztertzeko errekurtsoa, egintza egin duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurtsoaren xedeko egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurtsoaren xedeko egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita. Hori dena, bat etorriz urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluekin (lege horrek hizpide du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea) eta uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 333. artikuluarekin (lege horrek hizpide du Nafarroako Toki Administrazioa).

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, zuzendu behar baitzaio Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko organo eskudunari, uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legea), bi hilabeteko epean, errekurtsoaren xedeko egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

ZIGILUA
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua 2026/11/26

I. ERANSKINA
Eskabide eredua

ESKATZAILEA:
Izen-abizenak:
NAN:
Jaiotze data:
Helbidea:
E-posta:
Telefonoa:

AZALTZEN DUT:

- Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitateko euskara teknikari lanpostua betetzeko izangaien zerrenda eratzeko deialdian onartzea eskatzen dudala, bai eta kontratazio eta/edo ordezkapenetarako lan-poltsa bat sortzea ere.
- Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasun edo akats fisiko edo psikikorik.
- Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.
- Ez naizela diziplina espedientearen bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia izan, ez eta diziplinako kaleratzearen bidez bidalia ere, eta ez nagoela desgaitua eginkizun publikoak betetzeko.
- Deialdian eskatutako titulazioa dudala.
- Deialdiko baldintzak onartzen ditudala.
- Deialdian eskatzen diren baldintza guztiak eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean betetzen ditudala eta hura egiaztatzeko dokumentazio guztia atxiki dudala.
- Ezgaitasunen bat izanez gero:
  - ☐ Azaltzen den egokitzapena eskatzen dudala, adierazten diren arrazoiengatik (bertze orri batean azaldu beharko dira eskatzen diren egokitzapenak eta haietarako arrazoiak).
  - ☐ Ezindua naizela frogatzen duen agiria aurkezten dudala, erakunde eskudun batek emana.
- Instantziarekin batera ondorengo dokumentuen fotokopia atxikitzen ditudala:
  - ☐ Nortasun Agiri Nazionala –edo baliokidea–.
  - ☐ Eskaturiko euskara maila.
  - ☐ Eskaturiko titulazio akademikoa.
  - ☐ Merezimenduak konkurtso oposiziorako.

ESKATZEN DUT:

Horrenbertzez, iragarritako deialdian onartu izatea.

……..n, 20……ko ……..(a)ren ……..(e)an

ZIGILUA
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua 2026/11/26

II. ERANSKINA

Merezimenduen baremazioa (gehienez 30 puntu)

Lehiaketaldiak gehienez ere 30 puntuko balorazioa izanen du, modu honetan banaturik

1.–Lan esperientzia: 15 puntu, gehienez ere. Derrigorrezkoa izanen da entitate kontratatzailearen agiria aurkeztea entitate horretan garatutako lanak zehaztuta. Horrekin batera, Gizarte Segurantzak ematen duen hautagaiaren lan-bizitzaren agiria aurkeztu beharko da. Deialdi honetan eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egun bera izanen da lan esperientzia aintzat hartzeko azkeneko eguna. Esperientzia denbora egiaztatuak urte osoak egiten ez baditu edo lanaldia ez bada osoa, dagokion proportzioa aterako da.

a. Toki entitate baten zerbitzuan euskara teknikariaren lanpostuan lan egiteagatik: 4 puntu/urtea, gehienez 15 puntu. Zatiki bakoitzeko, haren ehunekoa.

b. Beste administrazio publiko batean euskara teknikariaren lanpostuan lan egiteagatik: 2 puntu/urtea, eta 6 puntu gehienez ere. Zatiki bakoitzeko, haren ehunekoa.

c. Elkarte edo erakunde pribatuetan euskara normalizatzeko dinamizatzaile, koordinatzaile edo teknikari gisa lan egiteagatik: 2 puntu/urtea, eta 6 puntu gehienez ere. Zatiki bakoitzeko, haren ehunekoa.

2.- Lanpostuarekin lotutako titulazio eta formakuntza espezifikoak: 15 puntu, gehienez ere. Atal honetan aurkezten diren dokumentu guztiek jatorrizkoak edo kopiak izan beharko dute. Aurkeztutako merezimenduak behar bezala frogatuko dira: hasiera eta amaiera datak zehaztuko dira, baita lanaldi mota, hala behar duenean, eta atal horiei dagokien puntuazioa kalkulatzeko beharrezkoa den informazio guztia ere.

a. Hizkuntza plangintzaren eta soziolinguistikaren gaineko graduondoko titulazioak: 5 puntu, gehienez ere.

b. Euskarazko C2 mailari dagokion titulazioa: 5 puntu, gehienez ere.

c. Formakuntza ikastaroak: 5 puntu, gehienez ere. Bakarrik soziolinguistika arloko ikastaroak hartuko dira aintzat. Modu honetan baloratuko dira:

- 10etik 30 ordura bitarteko ikastaro bakoitzagatik: 0,25 puntu.
- 31tik 50 ordura bitarteko ikastaro bakoitzagatik: 0,50 puntu.
- 51tik 100 ordura bitarteko ikastaro bakoitzagatik: 0,75 puntu.
- 101 ordu baino gehiagoko ikastaro bakoitzagatik: puntu 1.

Lehiaketan aurkezten diren dokumentu guztiek jatorrizkoak edo kopiak izan beharko dute. Aurkeztutako merezimenduak behar bezala frogatuko dira: hasiera eta amaiera datak zehaztuko dira, baita lanaldi mota, hala behar duenean, eta atal horiei dagokien puntuazioa kalkulatzeko beharrezkoa den informazio guztia ere

ZIGILUA
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua 2026/11/26

III. ERANSKINA
Proba teorikorako gaitegia

1. gaia.- Euskararen legezko egoera Nafarroan: Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Espainiako 13/1982 Lege Organikoa; Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea; 103/2017 Foru Dekretua, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan.

2. gaia.- Soziolinguistikaren eta hizkuntza gutxituen inguruko oinarrizko kontzeptuak: hizkuntza-komunitatea, hizkuntza-eskubideak, aniztasuna, hizkuntza-ukipena, -normalizazioa, -politika eta -plangintza, ekologia linguistikoa, hizkuntza-jarrerak, -ideologia eta -nortasuna, minorizazioa, diglosia, sozializazioa, alternantzia linguistikoa, eleaniztasuna.

3. gaia.- Euskararen inguruko soziolinguistikaren ekarpen teorikoak eta ikerketak: Txepetx, Txillardegi, Odriozola, Zalbide, Kasares, Iurrebaso...

4. gaia.- Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa: Oinarri metodologikoak eta emaitza nagusiak.

5. gaia.- Kaleko erabileraren neurketa: Oinarri metodologikoak eta emaitza nagusiak.

6. gaia.- Euskararen egoera normalizatzeko azpiegiturak. Entitate publikoak eta gizarte-entitateak; normalizazio-planak; hizkuntza-komunitatea indartzeko ekimenak eta programak.

7. gaia.- Bortzirietako ezaugarri demografikoak, geografikoak eta sozioekonomikoak. Antolakuntza administratiboa eta entitateen egiturak. 0-18 urte arteko hezkuntzako erreferentziazko zentroak. Elkarte eta bestelako erakunde publiko zein pribatuak: hezkuntza ez arautua, euskararen sustapena, tokiko hedabideak, kirola, kultura, aisialdia, arlo sozioekonomikoa... Tokiko kultura adierazpen nagusiak.

8. gaia.- Bortzirietako Euskara Zerbitzua. Ibilbide historikoa eta egungo antolamendua. Euskara biziberritzeko III. Plan Estrategikoa (2026-2031)

9. gaia.- Nafarroako toki-entitateetako euskara zerbitzuak. Nafarroako udaletako euskara teknikarien sarea (NUETS).

10. gaia.– Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea: hastapena, izaera, helburu orokorrak, irizpideak, UEMAko udalerrietako ezaugarri eta errealitate soziolinguistikoak eta sozioekonomikoak. Udalerri euskaldunetarako hizkuntza-irizpideak. Arnasguneak eta udalerri euskaldunak.

ZIGILUA
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua 2026/11/26

IV. ERANSKINA
Proba praktikorako gaitegia

1.- Bortzirietako entitate baterako (kiroldegia, zaharren egoitza, musika eskola…) normalizazio plana egitea, urtebeteko eperako.
2.- Bortzirietako kultur edo kirol elkarte baten funtzionamendurako hizkuntza irizpideak zehaztea.
3.- Eskualdeko merkataritzan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoa prestatzea.
4.- Bortzirietako toki entitateetako lanpostu zehatzetarako hizkuntza eskakizunen txostenak egitea.
5.- Tokiko komunikabideetarako eta webgunerako albistea idaztea.
6.- Haur eta familia etorri berrien harrera plan pilotua egitea Bortzirietako ikastetxe baterako.

ZIGILUA
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua 2026/11/26

V. ERANSKINA

Aldi baterako kontratazio-zerrendaren kudeaketa

1.–Aldi baterako kontrataziorako zerrendak eratzea.

Honako zerrenda hauek eratuko dira aldi baterako kontrataziorako:

–Kontrataziorako zerrenda nagusia, probak gainditu dituzten izangaiekin.

–Kontrataziorako erreserba-zerrenda, oposizioaldiaren lehen ariketa bakarrik gainditu duten izangaiekin.

2.–Lehentasun ordena.

Honako hau izanen da izangaien ordena aldi baterako kontrataziorako zerrendetan:

–Probak gainditu dituztenen kasuan, hautapen-prozesuan lortutako guztirako puntuazioaren arabera (lehiaketaldia eta oposizioaldia).

–Kontrataziorako erreserba-zerrendako izangaien kasuan, oposizioko lehenbiziko ariketan lortutako puntuazio handienaren arabera.

Puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, epaimahaiak ebatziko du, proba teoriko-praktikoan lortutako notarik altuena kontuan hartuta. Hala ere berdinketak bere horretan badirau, epaimahaiak zozketa bakar bat eginen du berdinketa hausteko.

3.–Dei egiteko arau orokorrak.

Lokalizaturik egon daitezen, zerrendako izangaiek eman beharko dituzte harremanetarako telefono bat eta helbide elektroniko bat, gutxienez, eta informazio hori une oro eguneraturik eduki beharko dute.

4.–Kontratazio-eskaintzak kudeatzea.

Kontratazio-eskaintzak arau hauen arabera eginen dira:

a) Presakoak ez diren kontratazioak. Kontratazioa presakoa ez denean, posta elektroniko bat bidaliko zaie izangaiei, eta bi egun baliodun emanen zaizkie, gehienez, eskaintza onartzen edo errefusatzen duten esateko.

b) Beranduenez bi egunetan hasteko kontratazioak. Beranduenez bi egunetan hasteko kontratazioak egin behar direnean, posta elektroniko bat bidaliko zaie izangaiei, eta hogeita lau ordu emanen zaizkie posta elektronikoa bidali zaienetik, eskaintza onartzen edo errefusatzen duten esateko.

c) Beranduenez hogeita lau orduren buruan edo lehenago hasteko kontratazioak. Beranduenez hogeita lau orduren buruan edo lehenago hasteko kontratazioak egin

ZIGILUA
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua 2026/11/26

behar direnean, telefonoz deituko zaie izangaiei, bati bestearen atzetik, indarrean den ordenari jarraikiz, harik eta norbaitek eskaintza onartzen duen arte.

Aurreko a) eta b) apartatuetako kasuan, behin erantzuteko epea bukaturik, honako honi eskainiko zaio kontratazioa: eskaintza onarturik, lehenbiziko postuan dagoen izangaiari, kontrataziorako zerrendan indarrean den ordenari jarraikiz.

Bai eskaintzari emandako baietza, bai ezetza, horretarako ezarritako epean eta moduan komunikatu beharko da.

Eskaintzari uko egiten bazaio, izangaiak jarraitu beharko dio eranskin honen 5. apartatuan ezarritakoari.

Egindako jarduketak erregistratu eginen dira, eta erregistro hori Langileen Batzordearen esku egonen da. Bertan, agertuko da, gutxienez, kontaktua zer egunetan eta ordutan egin den, zer bitarteko erabili den, eta zein izan den emaitza.

Norbait kontrataturik egon bitartean, ez zaio beste lanposturik eskainiko, non ez den plaza hutsak betetzeko, edo 6 hilabeteko edo gehiagoko kontratuetarako, edo lanaldia luzatzeko.

Deietarako orokorrean ezarritakoa deusetan ukatu gabe, izangaia lanpostuan aritu bada aldi baterako kontratu baten bidez eta, kontratu hori bukatu eta hurrengo 15 egunean, baimentzen bada antzeko lanpostu bat aldi baterako betetzea, Administrazioak izangai berari eskainiko dio kontratua, baldin dei egiten zaion unean baldintza hauek betetzen badira:

–Dei egiten den unean indarrean dagoen kontratazio-zerrenda batean egotea izangaia.

–Aurreko kontratua bukatzeko arrazoia ez izatea hari uko egin izana.

5.–Kontratatzeko eskaintzari uko egitea.

Ulertuko da izangaiak uko egiten diola kontratazio eskaintzari, baldin ez badu erantzuten ezarritako epean, edo berariaz uko egiten badio, salbu eta adierazten eta frogatzen badu, ezarritako epean eta moduan, honako hauetako bat gertatzen dela:

–Eskaintza egiten den unean, loturik egotea indarreko izendapen baten bidez edo administrazio- edo lan-kontratu baten bidez.

–Honako kasu hauetako batean egotea: aldi baterako ezintasuna, arriskua haurdunaldian, arriskua bularra emateko aldian, jaiotza, adingabea zaintzea, adopzioa, adopziorako edo harrerarako zaintza, edo kontratua eteteko beste edozein egoera, edo legez baliokidea den egoera.

–Zaindu behar izatea hiru urte arteko haurra, dela semea edo alaba izateagatik, adopzioagatik, edo adopziorako edo harrerarako zaintzagatik.

ZIGILUA
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua 2026/11/26

–Zaindu behar izatea bigarren gradura arteko odol edo ezkontza bidezko ahaide bat, berez baliatu ezin dena, adinagatik, istripuagatik, eritasunagatik edo desgaitasunagatik, baldin hark jarduera ordaindurik egiten ez badu.

Aurreko c) eta d) letretako arrazoiengatik uko eginez gero, izangaiak ez dira agertuko eskaintza berrietarako prest harik eta hilabete bat gutxienez igaro arte uko egin ziotenetik, salbu aurretik desagertzen bada uko egitearen arrazoia.

–Ezkontzeagatik edo bikote egonkor bat eratzeagatik (araudi aplikagarriari jarraikiz), baldin kontratatzeko hasierako eguna badago ezkontzaren edo bikote egonkorra eratu aurreko edo ondoko hamabost egun naturalen barnean.

–Desgaitasun aitortua izatea, baldin horren ondorioz ezin badira bete eskainitako postuaren berezko eginkizunak.

Baldin arrazoi horiengatik egiten bazaio uko eskaintzari, izangaiak agiri bidez frogatu beharko du, hurrengo zazpi egun naturalen barnean.

Eskaintzari erantzuten ez diotenak, edo epez kanpo erantzuten dutenak, arrazoi justifikaturik gabe uko egiten diotenak, edo agiri bidez frogatzen ez dituztenak arrazoi justifikatuak, behar bezala eta behar den epean, igaroko dira kontratazio-zerrendako azken tokira, galarazi gabe kasu batzuetan izangaia zerrendatik kanpo gelditzea, eranskin honen 6. apartatuarekin bat.

6.–Kontratazio zerrendatik baztertzea.

Deia jaso duten izangaiak kontratazio-zerrendatik baztertuko dira, baldin honako egoeraren bat gertatzen bada:

–Ondoz ondoko bi kontratazio-eskaintzari uko egitea arrazoirik gabe edo eskaintza horiei ez erantzutea.

–Dei egin eta lanpostua onartu ondotik, kontratua ez sinatzea, izangaiari egozteko moduko arrazoiengatik.

–Probaldia ez gainditzea. Horretarako, aurretik txosten arrazoitua egin behar du zerbitzuaren arduradunak, eta langileen ordezkariekin akordioa egin behar da.

–Sinatutako kontratuari uko egitea.

–Urtebeteko epean izangaiarekin harremanetan jartzea ezinezkoa izatea, nahiz eta behin eta berriz kontratatzeko dei egin hark emandako helbide elektronikoaren bidez.

–Lanpostua abandonatzea.

ZIGILUA
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua 2026/11/26

–Kontratua azkentzea diziplina espediente bat izapidetu izanaren ondorioz, baldin bukatzen bada azkentzea onesten duen ebazpen irmo batekin.

–Kontratua azkentzea gerora sortutako arrazoiak direla kausa; hain zuzen, kontratatzen den langileak ez izatea lanpostuan aritzeko gaitasunik edo ez egokitzea, baldin horrek berekin badakar errendimendu eskasa, galarazten duena lanpostuak dituen eginkizunak eraginkortasunez betetzea. Betiere, behar dira zerbitzuaren arduradunaren txosten arrazoitua eta akordioa langileen ordezkariekin.